



KOSTU EGITURAK

Gure enpresak bi kostu mota ordaindu beharko ditu, kostu aldakorrek eta kostu finkoak.

Kostu finkoak ekoizpen prozesuan zehar berdin mantentzen diren kostuak izango dira: lokala, zerbitzuen jasangarritasunaz arduratuko diren adituak kontratatzea, lokaleko wifi konexioa eta weba interneta mantentzearen kostua. Zerbitzu hauek hilabetero ordaindu beharko ditugu eta beti kopurua berdina izango da. Lokala alkilatua izango dugunez jabeari hilabete bukaeran lokala alkilatua izateagatik diru kopuru bat ordaindu beharko diogu. Bestalde, lokala eta gure enpresa martxan jartzeko behar ditugun elektrizitatea, argindarra eta wifia hornitzen dizkiguten konpainiei faktura iristen denean zor diegun dirua emango diegu. Gainera, weborria mantentzeko Squarespace bezalako enpresa bati hilabetero aurretik ezarritako kantitate bat ordaindu beharko dugu, 24€ inguruan egongo dena. Horretaz gain, gure enpresaren ofizinetan gertatu daitezkeen arazoren aurrean aseguru bat kontratatuko dugu: ordenagailuren bat apurtzen bada konpondu ahal izateko, lapurketa baten kasuan edo sute baten kasuan babesteko... Azkenik, gure enpresan ahal dugun heinean langile kopuru berdina mantentzen saiatuko gara. Horregatik, hilabetero emango diegun soldata beti berdina izango da. Hala ere, gure enpresak emaitza onak izango balitu eta gure zerbitzuak beste herrialdeetara zabalduko bagenu, aditu gehiago beharko genituzke gurekin lan egiten duten enpresak ikuskatzeko.

Kostu aldakorrek aldiz, ekoiztutako produktu edo zerbitzuen kopuruaren arabera aldatzen direnak dira. Gure kasuan enpresa aurrera eramateko ordaindu beharko ditugun kostu aldakorrek hauek dira: gure weborria sortuko eta disenatuko duen pertsonari ordaindu behar dioguna, lokaleko materiala, gure enpresak ondo funtzionatu ahal izateko, ordenagailuen mantenua eta publizitatea. Horrez gain, gure lokalean izango ditugun gastuak ere aldakorrek izango dira, adibidez, argindarra eta ura, izan ere, hilabetero ez dugu berdina gastatuko. Weborria sortzeko pertsona bat kontratatuko dugunez hari ere dagokion eta aurretik adostuta izango dugun kopuru bat ordaindu beharko diogu, gutxi gora behera 1.000€-ko ordainketa izango dela aurreikusten dugu. Ordainketa hau behin bakarrik egin beharko dugu enpresak haren laguntza hasieran bakarrik beharko dugula uste baitugu. Lokaleko material desberdinen mantenua, berriz, ez dugu uste hilabetero edo astero egin beharko dugun inbertsio bat denik.

Azkenik, gure enpresa martxan jarri ahal izateko hasieran Kutxabank bankuari mailegu bat eskatuko diogu eta hau itzultzen joan beharko dugu.